

# Uzta oparoa dakar euskal zinemaren sailak

NAIA ARANTZAMENDI

Euskal zinemari eskainitako Zinemira sailak hamahiru proposamen jasoko ditu aurten, eta horietako hamarrek mundu mailako estreinaldia izango dute Donostian. Igor Legarretaren *Inurri itsuak* filmarekin irekiko da saila.

Izar Films ekoiztetxea sortzaile Izaskun Arandia bere birraitonaren arrastoa jarraitzen du *Irailak* filmean. Horrez gain, Alejandro Cortés Calahorraren *La maleta de Álex* road movieak aita nor zen ezagutzeko Dodók egindako bidaia jaraitzen du.

Aitor Aranguren Ordóñezek *300 haritz* lehen film luzeak Mahaia Kolektiboko hogeita hiru kide biltzen ditu aurrera egiteari buruz hausnartzek

Lehen lana du *Simulacro* Nitya López Saitua zuzendariak ere, eta Iraia Elias eta Miguel Garcés aktoreekin birstutu du bere gurasoen haustura eragin zuen eztabaida.

Ez fikzioan zein telebistan eskarmentua duen Jabi Elortegik *Gatibu* rock taldearen 25 urteko ibilbidearen errepasoa egiten du *Gatibu, aguresan barik* ez-fikzioan. Ibilbideak ibilbide,

zortzi urtetan zehar grabatutako lana aurkezten du Elsa Oliarj-Inès zuzendariak *Txakun txakür* ez-fikzioan.

Maite Ibáñezek, berriz, *Pedro Arrupe. Yo viví la bomba atómica* filmean misiolari bilbotarraren testigantza biltzen du; 1945eko abuztuaren 6an Hiroshiman zen Enola Gay bonba-hegazkinak lehen bonba atomikoa jaurti zuenean. David Taberna eta Iñigo Puerta El Diario Vasco egunkariako kazetariak, oster, *Izarrak* aurkeztuko dute, euskal gastronomia eta Donostiako ingurunea munduan erreferente bakar bihurtzera eramane dituen ibilbidea aztertzen duen ez-fikzioa. Arantxa Aguirreren *Un tal Karlos* filmak egingo du sailaren itxiera, Karlos Argiñano sukaldari eta telebista aurkezlearen bizitzaren errepasoa eginez.

Haien mundu-estreinaldia Zinemaldian izanagatik, Zinemiratik kanpoko sailetan hautatuak izan diren beste film batzuk ere lehiatuko dira Euskal Zinemaren Irizar Saria eskuratzeko, zehazki, 20.000 eurokoa izango da saria, film irabazlearen ekoizleentzat.



## Jose Ramon Soroiz, Zinemira saria

Donostia Zinemaldiak eta EPE-IBAIA ekoizle-elkartek ematen duten ohorezko Zinemira sariaren bidez Jose Ramon Soroiz aktorea omenduko dute Euskal Zinemaren Galan. Lau hamarkada baino gehiagoko ibilbidean Euskal Herriko zinemaren, antzerkiaren eta ikus-entzunezkoen bilakaeraren lekuko eta protagonista izan den aktoreari Maspalomas filmak bere ibilbideari nazioarteko oihartzuna eta mugez gaindiko aitortza ekarri dizkio. Lan horri esker Donostia Zinemaldiko aktore onenaren Zilarrezko Maskorra eta Goya saria eskuratu zituen, azken hori irabazi duen lehen euskal aktorea bihurtuz.

INURRI ITSUAK

## Igor Legarreta: “Ekaitzen istorio bat da”



N. A.

Ekaitzaren ondorioz tonaka ikatz dituen itsasontzi ingeles bat hondoratu da Bizkaiko kostaldean. Gauzez herritarrak bilduko dira negu gorritik salbatuko dituen ikatza eskuratzeko. Hori da Igor Legarreta zuzendariaren *Inurri itsuak* filmaren abiapuntua.

Zinemira sailari irekiera emango dion filma Ramiro Pinillaren “harribitxi literarioan” oinarrituta dago, “Las ciegas hormigas” (1960) eleberrian. Zuzendariak Andoni de Carlosekin batera idatzi du gidoia eta moldaketa dramatiko zein estetikoak egin dituzte: “Hizkuntza desberdinak izanik eleberraren arima

mantentzen saiatu gara”.

Euskal kostaldean girotutako “tragedia grekoa” dugu, protagonistek askotariko oztopoak topatzen baitituzte bidean, handiena ekaitza bera izanik. Kostaldeko western bat bezala definitu du autoreak filma, bere aurreko lanetan bezala, lurraldeak berak pisu handia baitu kontakizunean. Ekaitza da filmaren erdigune eta lurraldeak baldintzatzen du protagonisten izaera: “Pertsonaien eraikuntzan pisu handia dute haizea, hotza eta itsasoa bezalako ezaugarriak. Barne zein kanpo ekaitzen istorio bat da”.

Dramatikoki zein bisualki oso potentzia den itsaslabarraren grabaketak

zailtasun teknikoak ekarri ditu, filmaren erdia gauzez eta euripean gertatzen delako. Egunez grabatu eta gaua simulatzeko asmoz, dekoratu bat eraiki behar izan dute. “Erronka handia suposatu du baina egoera kontrolpean izan eta segurtasuna bermatzeko egin dugu”.

Protagonistek bizirauteko, negu gorriari aurre egiteko, behar duten energia-iturriaren bilaketa du ardatz. “Gaurkotasuneko gaiak jorratzen dira; biziraupena, erresilientzia zein duintasuna”. 2021ean Zinemaldiaren baitan izandako elkarriketa batetik abiatu zen proiektuak bost urteko ibilaldia borobilduko du gaur Zinemiraren irekierarekin.

antiguoberri.com

PATROCINADOR DE LA  
PELÍCULA  
SORPRESA



Donostia Zinemaldia  
Festival de San Sebastián  
Patrocinador



ANTIGUOBERRI